

## OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2024IPLE0007  
**Eguna:** 2024-05-28  
**Ordua:** 19:00 – 19:42  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

### Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa ..... Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero ..... Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo ..... Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide ..... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena ..... Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre ..... Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos ..... Astigarragako EAJ-PNV

### Bertaratu ez direnak

- Manex Aldalur Beldarrain ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez ..... Udal talde euskal sozialistak

### Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

### Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezeko udal kontu-hartzailea

### Aztergaiak

- 1- 2024ko apirilaren 30eko eta maiatzaren 10eko aktak onartzea.
- 2.-Osoko bilkuraren eskumen batzuk gobernu batzordearenei eskuordetzeko proposamena
- 3.- Kreditu aldaketa, kreditu gehigarria KALD-0003: erreklamazioak eta behin betiko onarpena
- 4.-Astigarragako udal eraikin, bulego eta instalazioak, eta ikastetxeak garbitzeko zerbitzu-kontratua
- 5.-2024ko langile zerrenda eta plantila organikoa. Aldaketa zehatza
- 6.- Bateragarritasun eskaera
- 7.-Oinherri Herri Hezitzaileak Sustatzeko Elkartean bazkidetzea
- 8.- 2025eko jai eguna izendatzea
- 9.- .Informazio, galdera eta eskariak



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### Esan-eginak eta erabakiak

#### **1.- 2024ko apirilaren 30eko eta maiatzaren 10eko aktak onartzea**

Apirilaren 30eko aktari dagokionez (*apirileko ohiko bilerarena*), María zinegotziak hartu du hitza, eta esan du badakiela akta esandakoaren laburpena dela, eta askotan gertatzen dela ez dela esandakoa jaso, baina kasu honetan alderantziz gertatu dela, 5. gaian (Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Berrikusteko Irizpideak eta Helburuak) esan ez zena aipatzen baita. Adierazi du kexatu egin zela informazioa lehenago ez bidaltzeagatik, eta Andoni zinegotziak esan ziola 13 orrialde zirela, baina ez zuela liberazioaren inguruan ezer esan. Andoni zinegotziak adierazi du berek uste duela esan zuela, eta Mariak erantzun dio ezetz, grabazioa duela eta ez duela esaten, eta eskatu du hori aktatik kentzea eta hemendik aurrera osoko bilkurak grabatzea, horrelakoak saihesteko. Udal-idazkariari galdetuta horrek adierazi du berak hartutako oharretan horrela jasota dagoela.

Alkateak esaldi hori kentzea proposatu du, eta akta zuzenketa horrekin onartzea. Bozkatzera ekin zaio, eta akta onartu egin da aldeko 8 botoekin (Astigarragako EH Bilduko kideena) eta 3 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV taldeetako kideena).

Maiatzaren 10eko aktaren kasuan (*hauteskundeetako mahaikideen zozketarako egindakoa*), alkateak alde bozkatu du eta gainerakoek abstenitu egin dira, bilera horretan egon ez zirelako. Beraz, akta hau era onartu egin da.

#### **2.-Osoko bilkuraren eskumen batzuk gobernu batzordeari eskuordetzeko proposamena**

Alkateak tokiko gobernu-batzarrari eskuordetzari buruzko proposamen hau aurkeztu du, bozeramaile batzordeak ontzat eman duena:

***Lehena.-*** Udal osoko bilkurarenak diren eskumen hauek tokiko gobernu batzordeari eskuordetzea:

- 1.- Desjabetze-espeditenteak ebaztea, bai eta administrazio-bidean edo administrazioarekiko auzibidean errekurritu daitezkeen akordioak hartzea ere.*
- 2.- Egintza deuseztagarriak kaltegarritzat jotzea.*
- 3.- Egintzen erabateko deusezatasuna deklaratzeko.*
- 4.- Bategarritasun eskaeren luzapenak onartzea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **proposamena aho batez onartu** da.

#### **3. Kreditu aldaketa, kreditu gehigarria KALD-0003: erreklamazioak eta behin betiko onarpena**

Alkateak ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

***Lehenengoa.-*** 2092 erregistro-sarrera zenbakia duen erreklamazioa onartzea.

***Bigarrena.-*** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espeditentea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### **KREDITU GEHIGARRIAK**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Gehikuntzak</b>
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	140.992,23
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	41.400,73
6	INBERTSIO ERREALAK	255.000,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>437.392,96</b>

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **proposamena aho batez onartu** da.

#### **4. Astigarragako udal eraikin, bulego eta instalazioak, eta ikastetxeak garbitzeko zerbitzu-kontratua**

Alkateak Kontratazio mahaiaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.**- Astigarragako Udalaren jabetzakoak diren edo hark kudeatzen dituen eraikin eta lokalak garbitzeko zerbitzuaren kontratuaren 1. lotea (garbiketa arruntak – garbiketa orokorrak barne –) LIMPIEZA Y MANTENIMIENTO IMPACTO SL enpresari esleitzea, 640.586,65 eurotan -baldintzaturik bosgarren akordioan jasotakoa betetzera,- lehiaketa honetan punturik gehien lortu duen enpresa izan delako, hain zuzen, 91,96 puntu.

**Bigarrena.**- 1. Lote horren zerbitzuen ordainketa tarifa hauen arabera egitea:

- 1.urteko zerbitzu prezioa (lanaldi arrunta): 295.208,29 euro
- 1.urteko zerbitzu bereziak (lanaldi arruntean eta agiri teknikoko 9. klausulako ordu-poltsan sartuta ez daudenak): 18,09 euro/orduko
- 2.urteko zerbitzu prezioa (lanaldi arrunta): 345.378,36
- 2.urteko zerbitzu bereziak (lanaldi arruntean eta agiri teknikoko 9. klausulako ordu-poltsan sartuta ez daudenak): 18,79 euro/orduko

**Hirugarrena.**- Astigarragako Udalaren jabetzakoak diren edo hark kudeatzen dituen eraikin eta lokalak garbitzeko zerbitzuaren kontratuaren 2. lotea (leihoak garbitzea) GUREAK GARBITASUNA SLU enpresari esleitzea 31.358,81 euroren truke (BEZ barne hartu gabe), baldintzaturik bosgarren akordioan jasotakoa betetzera,- lehiaketa honetan punturik gehien lortu duen enpresa izan delako, hain zuzen, 95 puntu.

**Laugarrena.**- 2. Lote horren zerbitzuen ordainketa tarifa hauen arabera egitea:

- 1.urteko zerbitzu prezioa(lanaldi arrunta) :14.926,06 euro
- 1.urteko zerbitzu bereziak (lanaldi arruntean eta agiri teknikoko 9. klausulako ordu-poltsan sartuta ez daudenak) : 22,28 euro /orduko
- 2.urteko zerbitzu prezioa(lanaldi arrunta) : 16.432,75 euro
- 2.urteko zerbitzu bereziak (lanaldi arruntean eta agiri teknikoko 9. klausulako ordu-poltsan sartuta ez daudenak) 23,58 euro/orduko

**Bosgarrena.**- Enpresa esleipendunek, kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean, behin betiko bermea jarri beharko dute Udaleko Diruzaintza Sailean – 32.029,33 euro 1. Lotearentzat eta 1.567,94 euro 2. Lotearentzat;- halaber, agiriak aurkeztu beharko dituzte eta alde zuzeneko baldintzak egiaztatu, baldintza plegu administratiboen 25. klausulan adierazten den moduan,

**Seigarrena.**- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

## 5.- 2024ko langile zerrenda eta plantila organikoa. Aldaketa zehatza

Alkateak Kudeaketa, Berrikuntza eta Pertsonal Batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehenengoa.-** *Hasierako izaeraz onartzea udal honetako lanpostuen zerrendaren eta plantila organikoaren aldaketa, udaltzain-agenteen lanpostuei dagokionez.*

**Bigarrena.-** *Hasierako izaeraz onartzea udal honetako lanpostuen zerrendaren eta plantila organikoaren aldaketa hirigintza, etxebizitza eta ingurumeneko lanpostuei dagokionez.*

**Hirugarrena.-** *Erabaki hau 15 laneguneko epean jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuaz.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

## 6.- Bateragarritasun eskaera

Alkateak Kudeaketa, Berrikuntza eta Pertsonal Batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** *Indarrik gabe uztea 2015eko otsailaren 4ko osoko bilkuran hartutako erabakia, udal funtzionario batzuen bateragarritasunari buruzkoa.*

**Bigarrena.-** *2015eko otsailaren 4ko osoko bilkuraren akordioa berrikusteko espedienteen Tito Perkaz Imaz udal langileak aurkeztutako alegazioa ezeztea.*

**Hirugarrena.-** *Tito Perkaz Imaz udal-langileari jarduera pribatuan arkitekto lanetan jarduteko bateragarritasuna onartzea, baldintza hauekin:*

- 1.- Arkitekto lanak udalean duen lanalditik kanpo egin beharko da. Bateragarritasuna onartzeak ezin izango ditu udal langilearen lanaldia eta ordutegia aldatu, eta lanpostuz aldatuz gero, bateragarritasun aitortpena automatikoki geratuko da ondorioz gabe.*
- 2.- Bigarren jardueran ezingo da Astigarragan erroldatutako inor artatu udalerrian erroldatutako edonor edozein udal departamenduetako erabiltzaile potentziala baita, ez eta udalerrian egoitza duen pertsona juridikorik ere. Enpresa batentzat edo merkataritza-harremana duen talde batekin lan eginez gero, erakunde horietako kideek ere baldintza bera bete beharko dute.*
- 3.- Ezin izango du lan egin, ez zuzenean ez zeharka, azken 5 urteetan Astigarragako Udalean zerbitzuak eman dituen enpresa, pertsona fisiko edo juridikoren batentzat; ez eta 5 urteko epe horretan udalerrian – udalarentzat edo partikularrentzat – obrak egin dituzten enpresentzat ere.*
- 4.- Urtero, egindako fakturen eta elkargo ofizialak ikus-onetsitako proiektuen zerrenda aurkeztu beharko du, bai eta Udalak eskatutako dokumentazioa ere, egiaztatu beharko baita betetzen direla Udalak ezarritako baldintza guztiak, bai eta legezko betekizunak ere.*
- 5.- Bateragarritasuna aitortzen duen erabakian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, bateragarritasun-aitortpena indarrik gabe geratuko da.*



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

*6.- Bateragarritasun-aitorpena bi urtean behin berrikusiko da. Halaber, berrikusiko da Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea aldatzen denean edota Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunen araubide juridikoa xedatzen duen araudi berriren bat indarrean sartzen denean (bai estatuko mailakoa, bai erkidegokoa), edota lan-hitzarmen berria onartu eta aitorten horri eragiten dionean.*

**Laugarrena.-** Gardentasuna eta informazio publikora jotzea eskubidea arautzen duen 19/2013 legeak 8.1.g artikuluan xedatutakoa jarraiki, bateragarritasun onarpena udal web orrian txertatzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **irizpena aho batez onartu** da.

### **7.- Oinherri Herri Hezitzaileak Sustatzeko Elkartean bazkidetzea**

Alkateak Euskara eta Hezkuntza batzorde informatiboaren irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

**Bakarra.-** Onartzea Astigarragako Udala Oinherri elkartean bazkidetzeko proposamena.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **irizpena aho batez onartu** da.

### **8.- 2025eko jai eguna izendatzea**

Alkateak adierazi du normalean Santa eguna izendatzen dela jai eguntzat, Santio eguna jai izaten delako, baina aurten biak jai direnez, proposatu dela uztailaren 24 izendatzea, egin berri den bozeramaile batzordeak aho batez onartu duena. Ondoren, akordio hau hartzea proposatu du:

**Bakarra.-** Uztailaren 24a izendatzea 2025eko herriko jai eguna.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **irizpena aho batez onartu** da.

### **9.-Informazio, galdera eta eskariak.**

#### **a.- Obra-kontratuak.**

Alkateak azaldu du Arrobitxuloko hiritartze lanak martxa onean doazela, ibai-parkearenak bukatzeaz daudela eta Apeztegiko igogailuarenak hasi berri direla.

#### **b.- Tokiko planak**

Alkateak azaldu du azken hilabeteetan, eragile, elkarte eta herritarrekin batera, landu direla Euskararen Plan Estrategikoa, A\* Tokiko Garapen Jasangarriko Plana, Astigarragako emakume eta gizonen berdintasunerako plana 2030 eta Irisgarritasun Plana landu direla eta ondoren egingo den tokiko gobernu batzarrean aurkeztuko direla, onartuak izan daitezen. Eta ondoren webgunera igoko direla.

**d.- Aurrekontu partehartzaileak**

Alkateak azaldu du “zure esku dago” zozketa martxan dagoela, baina aplikazio informatikoarekin arazo bat egon denez, boto emateko epea ekainaren 2a arte luzatu dela.

**e.- udal osoko bilkuretako saioak.**

Maria zinegotziak proposatu du osoko bilkuretako saioak zuzenean ematea, beste herri batzuetan egiten den bezala, hori herritarrak saioak jarraitzeko modu erraza izateaz gain, sahiestuko lukeelako aktetan jasotakoarekiko desadostasunak.

**f.- Ergobia plaza**

Herritar batek hitza hartu eta adierazi du beren etxearen sarreran parea bat eraiki dela.

Alkateak azaldu dio Bortoeneako etxebizitzak eraikitzeko eskatu zela ere hiritartze lanak egitea, arrapala eraiki dela irisgarritasuna bermatzeko, eta proiektu hori 2023ko otsaileko tokiko gobernu batzarrak onartu zuela aho batez, eta proiektu horren berri izan zutela.

Herritarrak adierazi dio jendaurrean egon zen proiektuan arrapala ez zela modu horretan azaltzen, egindako aldaketarekin bere etxe atarian eraiki dela, ez dutela aukerarik izan aldaketei alegazioak aurkezteko eta zein boletinetan argitaratu den galdetu du.

Alkateak azaldu dio gauzatutako obrak udalak onartutako Bortoenea hiritarte proiektuan jasotakoak direla.

Beste herritar batek hitza hartu eta obra itsusitzat sailkatu ondoren, behin eta berriro adierazi du hormigoia bakarrik dela eta barandarik ere ez dela jarri. Bestetik adierazi du horrekin auzoa izorratzen ari direla, bai eta udal arkitektoarekin hitz egin zutela, eta beste modu batean egitea adostu zela. Eta Azkenik adierazi du espero duela ez gertatzea Mendizabalekin bezala, eta kendu behar izatea.

Alkateak azaldu dio ez dela egia herrian esaten dena udalak Mendizabali 800.000 euro ordaindu behar izatearen inguruan, eta udalak 10 auzigaitik 9 irabazten dituela. Bestetik azaldu du aurreko ostiralean ez bazen auzora joan, izan zela abisatu aurretik beste bilera bat hitzartuta zuelako, baina udal-arkitektoari esan ziola joateko eta hura joan zela. Eta parte hartu duen lehen herritarrak erantzun dio udal arkitektoari ostiralean eskatu ziola proiektua baina oraindik ez duela jaso.

Hirugarren herritar batek hitza hartu eta barandarik ezin zen jarri galdetu du, esaterako tranbia ibilbideko farmazi parean jarritako batzuk. Eta Andoni zinegotziak erantzun dio horiek ez dituela udalak jarri, obren sustatzaileak baizik.

María zinegotziak hitza hartu eta adierazi du ostiralean eskatu zuela hiritartze-proiektua (bai erregistroz, bai udal arkitektoari) eta ez duela jaso. Gaineratu du badakiela hiritartze-proiektu horretan aldaketa bat egon zela arrapalari dagokionez, eta otsailean onartutako proiektuan jasota zegoen galdetu du.

Andoni zinegotziak adierazi du hasierako izaeraz onartu ondoren, jendaurrean jarri zela eta udal arkitektoak eskatu zuela arrapala beste modu batean egitea, eta proiektua horrela onartu zela.

Lehendabizi parte hartu duen herritarrak adierazi du beraiek jendaurrean zeuden proiektuarekin ados zeudela, baina ez aldaketarekin, eta gaineratu du esan diotela aldaketa hori jendaurrean jarri behar zela, obra eremutik kanpo dagoelako, eta Andonik erantzun dio hirigintzako udal aholkulari juridikoak ez duela horrela ikusten.

Hirugarren herritarrak berriro ere hitza hartu eta adierazi du egindako obra antiestetikoa dela, eta ez duela

ulertzen hainbeste eskailera-zati egin izana eta zergatik ez diren farmazia berriaren eremutik baranda batzuk kentzen, arrapala honetan jartzeko.

**g.- Tranbia ibilbide - Ergobia plazako garajeen irteera.**

Ergobiko arrapalaren gaian parte hartu duen azken herritarrak adierazi du garaje horretan 145 auto inguruko edukiera duela (Goizuetako 126 + 19), baina irteeran pibote gehiegi daudela eta batzuk, irtetzeko garaian, ez direla ondo ikusten, eta konponbide bat eskatu du.

Andoni zinegotziak erantzun dio konponbide egingarri bat aztertzen eta bilatzen ari direla, eta Aitor zinegotziak esan dio, aldiz, pasabidea estua bada, bigarren ilaran aparkatzen zelako kexak aurkeztu zirelako izan zela, eta bizilagunak erantzun dio, hala badagokio, ezinezkoa zela espaloia eta piboteen artean aparkatzea.

**h.- Ibai-parkea.**

Herritar batek adierazi du ibai-parkea gauez oso iluna dagoela, zonalde handia dela eta dagoen bezala arriskutsua dela, eta argiztapen proiekturik egin den galdetu du.

Alkateak azaldu dio biodibertsitatea babesteko parke gisa sortu zela, baina azterketa luminikio bat egin dela, eta argiztatu egingo dela parkea antzokiaren plataformaren, mahaien eta txakur-parkearen altueraraino. Eta Andoni zinegotziak gaineratu du beheko zatia berdin mantenduko dela argi-kutsaduragatik.

**i.- Rezolako erakinen utzikeria**

Herritar batek adierazi du Rezola eraikinerako okupak sartu direla, inguruan segurtasunik eza dagoela eta bi autotan lapurtu dutela.

Alkateak adierazi dio dagoeneko eskatu dela, batetik, hesi bat jartzea eraikin osoaren bueltan, eta bestetik, ateak tapiatzea.

Eta herritarrak galdetu duenean eraikin horretarako erabilerarik aurreikusia dagoen, alkateak erantzun dio oraindik ezetz, Ur-agentziak ez duela botatzeko agindua eman, baina ez duela edozein jardura baimenduko, eta asmoa dela ideia lehiaketa bat egitea, leku polita izan daitekeelako jarduera askotarako, baino horrek kostu handia izango duenez, kanpo finantzaketa biletu beharko dela.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2024ko maiatzaren 28an

Kontxi Urdampilleta Santamaria  
Ordezko idazkaria